

# BALIO PROPOSAMENA

Gu emakumez osatutako Lasarte Oriako, Oriarte institutuko ikasle talde bat gara. Sortuko dugun enpresa, telebista kate bat izango da. Bertan emakume zein gizonen kirola ikusteko aukera izango dugu. Enpresa hau sortzeko gaur egun dauden arazoetan oinarritu gara, adibidez, telebista edo irratia pizten dugun bakoitzean mutilen kirolari buruz ari dira etengabe hizketan eta emakumearen kirola bigarren planoan uzten dute. Horretarako, emakumearen kirola maila berean egoteko sortu dugu telebista kate hau, bertan kirolari eta kirolariei buruzko informazioa eta partidoak igorriko dira.

**Berritasuna:** Garrantzi berdina emango diegu bai emakumeen kirolari baita gizonezkoen kirolari ere. Hau da, gaur egun mutilen partidoak arratsalde eta ordu onean izaten dira, ondorioz, gehiago hitz egiten da mutilen kirolari buruz eta ikusle eta jarraitzaile gehiago dituzte. Zoritxarrez, emakumeen partidak goizez edo ordu txarrean igortzen dira eta ondorioz ez ditu hainbeste ikusle. Horrez gain, saltseo programetan gizonezko kirolarien bizitzari buruz bakarrik hitz egiten dute eta emakumeak ez dituzte aipatzen. Emakumei bitxikeriei buruz hitz egingo balitz aldaketa handia suposatuko luke eta jarraitzaile gehiago izango lituzkete. Ondorioz, gure katean berrikuntza hau egongo da.



Kate bat denez orduro martxan egongo da, horretarako kirol desberdin eta tertuliak egongo dira. Gainera, tenporadaren arabera kirol desberdinak ikusteko aukera egongo da, adb: Udarari: arrauna, tenisa, igeriketa, golf, surf, txirrindularitza... Neguan: ski, patinaje, piragua, saskibaloia, futbola... Udazkena: atletismoa, eskubaloia, rugby... Udaberrian; Pin pon, xakea, dantza, balleta...

Gu, arrakasta handia ez duten kirolean murgilduko gara. Horrela futbolari edo fama handia duten kirolei garrantzia kenduko diegu. Horrek ez du esan nahi kirol hauek alde batera utziko ditugunik.

Horretaz gain, dokumentalak ere emango ditugu. Hauek kirolarien bizitzan eta kirol desberdinetan murgilduko dira eta jendearen interesa piztuko dute. Kirolarien lorpenak, esperientziak eta bere bizitza pertsonalari buruz hitz egingo dugu elkarrizketen bitartez.

**Diseinua:** Diseinu on bat egitea garrantzitsua da gure produktuaren publizitatea erakargarria izateko. Kalitate oneko produktua izanez gero, bezero gehiago lortu ditzake, baina, diseinu txar, itsusi edo sinple batekin, seguruenik ez diote garrantzirik emango. Horretarako, gure enpresaren hainbat ezaugarri irudikatu beharko ditugu.



**Marka/Estatusa:** gure telebista katea ikusten duten bezeroek aukera gehiago dute emakumeen kirolari buruz gehiago jakitea, beste kirol kateetan ez baitzaio hainbesteko garrantzia ematen. Orokorrean, kirolei buruz gehiago jakingo dute, gure telebista katea gizonezko eta emakumezkoena baita. Kate honen ikusleak, garrantzi berdina emango diote beste kirolei (beste kateetan hain gutxitan edo denbora gutxi irauten dutenak) eta garrantzia kenduko diote kirola ezagunei, adibidez, futbola. Beraz, kate hau ikusten dutenak jakintsuagoak izango dira kirola munduan.